Noticias desde
Getxo Udala • Ayuntamiento
www.getxo.net
Marzo 2011

# Getxo Antzokia



UNA VENTANA AL ABRA, ESCENARIO DE EMOCIONES …FARO CULTURAL DE NUESTRO ENTORNO



# El parking de residentes de San Nicolás supera el ecuador de la obra

El proyecto de aparcamiento subterráneo para residentes que se ubicará bajo la Plaza San Nicolás ha alcanzado el ecuador de los trabajos habiéndose completado la casi totalidad de la cimentación y estructura. En la actualidad, se encuentra en disposición de acometer los trabajos de la estructura de la cubierta del edificio, de manera que se está iniciando la construcción del futuro suelo de la Plaza San Nicolás.
Una vez se ejecute dicha parte de la obra, se procederá a reubicar los pasos peatonales actuales de forma temporal con el fin de habilitar la calle Andrés Cortina y, así, poder ampliar y ensanchar la vía actual hasta alcanzar la fachada de la Iglesia (mejorará la disposición actual durante el tiempo de obra restante).
Durante la segunda mitad de los trabajos del aparcamiento se ejecutará la impermeabilización, capa de hormigón de protección provisional y resto de trabajos interiores del edificio como instalaciones, distribuciones, acabados…

**Concesión de las plazas de aparcamiento**
En los próximos meses se darán a conocer las condiciones administrativas y procedimiento para la concesión de las plazas de aparcamiento de las que se informará puntualmente a los vecinos y vecinas de Getxo residentes en el área de influencia que se defina.



Imagen actual del interior del parking

# La nueva Musika Eskola, más allá de la formación, será un espacio de participación cultural

Las futuras instalaciones de la Musika Eskola configurarán un espacio de referencia cultural y artística en Getxo, en el que confluirá la enseñanza de la música con el disfrute de la interpretación musical, teatro, danza… Un espacio, por tanto, en el que las y los getxotarras podrán ser tanto protagonistas activos como pasivos en el disfrute de las artes.
La manifiesta necesidad de ampliar y mejorar las instalaciones actuales encontrará en el nuevo espacio una respuesta contundente. Se traducirá en la posibilidad de llegar a más vecinos y vecinas de Getxo y, además, en mejores condiciones. Por una parte, el inicio de la actividad en la futura Musika Eskola permitirá que residentes en Algorta, Andra Mari y Neguri no tengan que desplazarse hasta Las Arenas; por otra, la disponibilidad de locales más adecuados para el alumnado más pequeño e incluso para la musicoterapia se prevé redunde en un incremento de la matriculación. Además, permitirá la consolidación de la oferta de la Musika Eskola al disponer de locales apropiados para los ensayos de agrupaciones.
Con la entrada en funcionamiento de la Musika Eskola de Algorta llegará la descentralización de la actividad de 'Andrés Isasi'. La actividad se desdoblará, que no duplicará, para mejorar la condiciones físicas y acústicas de trabajo en enseñanza musical de aquellas actividades que son puntales del proyecto, como la actividad de agrupaciones de gran tamaño, bandas y orquestas principalmente, que se desarrollará en la nuevas instalaciones. Además, se desdoblará la enseñanza de las especialidades y asignaturas con mayor demanda: música y movimiento, lenguaje musical, piano, guitarra, flauta y violín.
Se estudiará la distribución del alumnado en función de su residencia, procurando que la enseñanza sea en las instalaciones más cercanas al domicilio. Además, en la medida de lo posible, se intentará organizar su horario bajo los criterios de minimizar el número de días de asistencia a clase, así como reducir el tiempo de espera entre asignaturas.
Las nuevas instalaciones potenciarán el desarrollo de múltiples actividades de música grupal en mejores condiciones que las actuales, lo que facilitará la presencia, convivencia e intercambio con otros centros con los que se comparte objetivos e intereses.

**Oferta de enseñanza**
Tras el estudio de la demanda de servicio que se produzca se procurará dar la mejor respuesta posible desde la oferta educativa que actualmente se realiza en la Musika Eskola; pero, además, se considerarán las propuestas que, tanto de forma individual como desde el tejido asociativo musical y artístico de Getxo, se realicen con motivo de la apertura de las nuevas instalaciones.
La amplia oferta abarca la docencia musical desde edades tempranas hasta la vejez. Concretamente alcanza el aprendizaje del lenguaje musical, la enseñanza de instrumentos de música de raíz tradicional, de toda la familia instrumental sinfónica – a excepción del arpa- y de los instrumentos polifónicos, piano y guitarra. También la instrucción de jazz e informática musical, así como la enseñanza de canto tienen su espacio.
La práctica de música en conjunto como uno de los ejes vertebradotes de la enseñanza musical: banda, orquesta de cuerda, fanfarria e instrumentos de raíz tradicional, combo, coro, agrupaciones diversas de música de cámara… caracterizan también la oferta de enseñanza.



Vista de la Musika Eskola desde la Plaza San Nicolás

## En detalle...

**Ciberspacio en la Musika Eskola**
La Musika Eskola contará a nivel de la planta baja, junto al acceso, con un Ciberespacio. Se trata de un área con puntos de acceso a Internet a disposición de las y los alumnos con el fin de que se puedan realizar tareas, trabajos en grupo o búsqueda de información musical complementaria a la impartida.



## La opinión de...

**Pablo de Naverán,**
Violoncelista getxotarra de acreditada trayectoria

La desaparición y posterior reconstrucción del Getxo Antzokia es un hecho memorable. Si para alguien, como yo, dedicado a la música, el sonido y sus consecuencias podrían concebirse como un acto de fe, de entrega, el recinto donde este acto se produce podría también considerarse como un templo. Un espacio donde tienen lugar hechos muy relevantes, hechos que redimen al ser humano de su condición animal y que todos necesitamos.
Creo que, aunque progreso sea una noción casi siempre interpretable, una palabra en boca de todos dicha muchas veces sin mayor fundamento, una palabra mediante la que parece que buscáramos el acuerdo, como quien comenta unos rayos de sol que se han dejado ver por la mañana y confraterniza con algún desconocido, creo que en el caso del Getxo Antzokia el progreso brilla en todo su esplendor. Un edificio que no solamente cumplirá su función, como antiguamente lo hacía, sino que lo hará con el añadido de multitud de posibilidades antes impracticables y que, además, por su carácter vanguardista y llamativo, hará, como ya es el caso, que Getxo esté en la boca de muchos.
Personalmente muy sensible a la acústica de los lugares donde toco, estoy deseando conocer nuestro nuevo teatro, experimentarlo y compartir su espacio con mi querido público getxotarra. También quisiera expresar un sentido adiós al teatro que tuvimos, con su carencias, pero en el que seguramente todos habremos vivido momentos inolvidables. Yo había tocado en él apenas unas semanas antes de su demolición, y no olvidaré el ambiente bohemio, entre velas y humedad, de los camerinos, la oscuridad de los pasillos que llevaban al escenario, el exceso de polvo, todo parecía estar despidiéndose. Y fue triste ver de pronto aquel solar vacío. Pero si existe un cielo para los teatros, desde allí, no tengo ninguna duda, nuestro antiguo Getxo Antzokia sonreirá lleno de felicidad.

## ¿Sabías que...

…se ha elaborado un Plan de Auscultación por expertos en geotecnia que ha reducido al máximo el impacto de una construcción de gran complejidad como el Getxo Antzokia con medidas preventivas que van más allá de los niveles obligatorios? ¿Y que antes de comenzar las obras se realizó un levantamiento notarial del estado de los edificios colindantes, al tiempo que el Ayuntamiento asumía el compromiso de reparar cualquier deterioro provocado por los trabajos al término de los mismos? ¿Y que se ha contratado a un equipo externo de geotecnia que mensualmente hace un seguimiento exhaustivo del proyecto?

i
- Teléfono de información: 94 466 01 05
- Correo electrónico: iradokizun@getxo.net

Berriak

# Getxo Antzokia

ABRARA ZABALDUTAKO LEIHOA, EMOZIOEN AGERTOKIA... GURE INGURUKO ARGI KULTURALA

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO

www.getxo.net

Martxoa 2011





## San Nikolaseko aparkalekuaren obraren erdia eginda

San Nikolas plaza azpian kokatuko den egoiliarrentzako lurpeko aparkalekuaren proiektuaren obraren erdia burutu da eta beraz zementatze eta egituraren ia lan guztiak amaitu dira. Gaur egun, eraikinaren estalkiaren egituraren lanak egiten hastear daude eta horrela esan daiteke San Nikolas plazako etorkizuneko zorua eraikitzen hasten ari dela.

Obraren zati hori bukatu ondoren, egungo oinezkoentzako pasabideak tokiz aldatuko dira aldi baterako Andres Cortina kalea egokitze aldera eta horrela egungo bidea elizaren aurrealderaino zabaldu ahal izateko (gainontzeko lanak egiten diren bitartean egungo antolaketa hobetuko du neurri horrek).

Aparkalekuaren obraren bigarren partean honako lan hauek eramango dituzte aurrera: iragazgaiztea, aldi baterako babes-hormigoizko estaldura eta eraikinaren barruko gainontzeko zereginak, tartean banaketak, azken ukituak….

**Aparkatzeko tokien emakida**

Datozen hilabeteotan emango dira ezagutzera aparkatzeko tokien emakidarako baldintza administratiboak eta prozedura. Horiei buruzko informazioa helaraziko zaie zehaztuko den eragin aldean bizi diren Getxoko auzokideei.



Aparkalekuaren barrukoaren egungo irudia

## Musika Eskola berria, heziketa baino gehiago, kultur partaidetzarako gunea izango da

Musika Eskolako Algortako etorkizuneko instalakuntza erreferentzia-gune kultural eta artistikoa izango da, hor batuko baitira musikaren artearen irakaskuntza, musika interpretazioa, antzerkia, dantza eta abar. Beraz, arteen gozamenean getxotarrek protagonista aktiboak eta baita pasiboak ere izateko tokia izango dute.

Egungo instalakuntzak zabaltzeko eta hobetzeko zegoen beharrak egoitza berrian erantzun ezin hobea edukiko du. Getxoko auzokide gehiagorengana eta gainera baldintza hobeagoetan heltzeko aukera suposatuko du. Alde batetik, Musika Eskolan jarduera martxan hasteari esker Algortako, Andra Mariko eta Neguriko auzokideek ez dute Areetara joan behar izango. Bestetik, ikasle txikiagoentzat eta baita musikoterapiarako ere gela egokiagoak edukitzeak matrikularen hazkundea ekartzea aurreikusten da. Gainera, taldeen entseguetarako lokal egokiak edukitzeak Musika Eskolaren eskaintza finkatzea ahalbidetuko du.

Algortako Musika Eskola funtzionatzen hasten denean Andres Isasi eskolaren jardueraren deszentralizazioa helduko da. Jarduera bi tokitan banatuko da, ez da bikoiztuko, proiektuko oinarriak diren jardueren irakaskuntza musikalean baldintza fisiko eta akustikoak hobetuko dira, esate baterako, bandenak eta orkestrenak batez ere, instalakuntza berrietan egingo baitira. Gainera espezialitateak eta eskaera handiena duten ikasgaiak bi tokietan eskainiko dira, hau da, musika eta mugimendua, hizkuntza musikala, pianoa, gitarra, flauta eta biolina.

Ikasleen banaketa beraien bizilekuaren arabera aztertuko da, irakaskuntza etxetik hurbilen dagoen egoitzan izaten saiatuz. Gainera, ahal den neurrian, ordutegiak klasera joan beharreko egunen kopurua gutxitzeko irizpidea hartuta antolatuko dira, eta baita ikasgaien arteko itxarote denbora murrizteko ahaleginak egiten ere.

Instalakuntza berriek taldeko musika jardueren garapena biderkatzea bultzatuko dute, egungo baldintzetan baino hobeagoetan, eta horrek interes eta helburu komunak dituzten beste zentro batzuekin presentzia, bizikidetza eta elkartrukeak erraztuko ditu.

**Irakaskuntza eskaintza**

Zerbitzuaren eskaeraren azterketaren ondoren Musika Eskolak gaur egun duen hezkuntza eskaintzatik erantzun hoberena ematen saiatuko da; baina gainera instalakuntza berriak martxan jartzearen ondorioz era indibidualetik edo Getxoko elkarteen sare musikala eta artistikotik egindako proposamenak ere hartuko dira kontuan.

Eskaintza zabalak irakaskuntza musikala haurren eta edadetuen artekoentzat eskainiko du, hain zuzen ere, hezkuntza musikala, instrumentu tradizionalen irakaskuntza, familia sinfoniko osoaren musika tresnak –arpa izan ezik- eta instrumentu polifonikoak, pianoa eta gitarra. Jazz eta informatika musikaleko heziketa eta baita kantuarena ere izango dira.

Irakaskuntzaren eskaintzaren beste ezaugarri bat da musika taldeka praktikatzea (banda, korda orkestra, fanfarre eta jatorrizko instrumentuak, konbo, abesbatza eta ganbarako musikako talde desberdinak...) irakaskuntza musikalaren ardatz egituratzaile bezala.



Musika Eskolaren irudia San Nikolas plazatik

### Zehatz-mehatz

**Ziberespazioa Musika Eskolan**

Musika Eskolak beheko solairuan, sarreraren ondoan, Ziberespazio bat edukiko du. Horretan ikasleek Internetekin konektatzeko puntuak edukiko dituzte, besteak beste, beren zereginak edo talde lanak egin eta musika-informazio osagarria bilatu ahal izateko.



### Bere Iritzia…

**Pablo de Naverán,**
Fama handiko ibilbidea duen Biolontxelo-jotzaile getxotarra

Getxo Antzokia desagertu eta ondoren berriro eraikitzea gertakari gogoangarria da. Musikagintzan diharduen ni bezalako batentzat soinua eta bere ondorioak fede ekintzatzat, arima ematetzat, har badaitezke ere, ekintza hori gertatzen den esparrua tenplutzat har zitekeen modu berean. Gertaera oso garrantzitsuak jazotzen diren lekua da, eta gertakari horiek gizakia berrerosten dutenak dira, guztiok behar ditugunak. Aurrerapenarena ia beti interpretagarria den nozioa den arren, guztion ahotan dabilen berba, sarri ganora askorik gabe aipatzen dena, bere bitartez adostasuna bilatzen dugunaren itxura duen berba, goizean argitu diren eguzki izpien gainean iruzkina egiten duenaren eta ezezagun batekin adiskidetzen denaren antzera, uste dut, Getxo Antzokiari dagokionez, aurrerapenak dirdira handia duela. Bere zeregina bete ez ezik, antzina egiten zuen legez, eraikin hau haratago joango da lehen gauzatu ezinak zirenetatik aukera mordoa eskainiko baitu, eta horrez gainera, izaera abangoardista eta deigarria duenez, Getxo askoren ahotan ibilaraziko du, egun gertatzen den bezala. Jotzen dudan lekuetako akustikarekin sentikorra naizenez, irrikan nago gure antzoki berria ezagutzeko, esperimentatzeko eta bere espazioa nire ikus-entzule maitagarriekin partekatzeko.

Bihotz-bihotzez agur esan nahi nioke izan genuen antzokiari, gabeziak zituen arren, seguruenera guztiok une ahaztezinak bizi izan ditugulako. Eraitsi aurretik, aste apur batzuk lehenago jo izan nuen bertan, eta ez ditut ahaztuko aldagelen argizari eta hezetasun arteko giro bohemiarra, agertokira zeramaten pasilloen iluntasuna, gehiegizko hautsa. Den-denak agur esaten ari zirela zirudien. Eta tristea izan zen bat batean orube hura hutsik ikustea. Baina antzokientzat zerurik izatekotan, handik, ez dut inolako zalantzarik, gure Getxo Antzoki zaharra irribarretsu izango da zorionez beterik.

### Bazenekien…

Auskultazio Plana egin dutela Geotekniako aditu batzuek eta horrek konplexutasun handia duen Getxo Antzokia bezalako eraikinaren inpaktua ahalik eta gehien murriztu duela, beharrezko mailek eskatzen dituztenak baino prebentzio neurri handiagoekin? Eta lanak hasi aurretik alboko eraikinen egoeraren notario-akta altxatu zela eta aldi berean Udalak lanek eragindako edozein narriadura konpontzeko konpromisoa hartu zuela obra amaitutakoan? Eta kanpoko Geotekniako taldea kontratatu dela, hilabetero proiektuaren jarraipen sakona egiteko?

i
- Informazio-telefonoa: 94 466 01 05
- Posta elektronikoa: iradokizun@getxo.net